



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2016/02/03

## **Bidea libre Gardentasunari buruzko Bizkaiko Foru Araurako**

Gardentasunari buruzko Bizkaiko Foru Arauak izapide barri bat gainditu dau gaur Batzar Nagusietan. Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak, geroago egingo dan osoko bilkura batean onesteko prest itzi dau testu barria, Batzar Nagusietako taldeen 26 zuzenketa-eske sartu eta gero. Onartu diran zuzenketa-eske horreetatik 21 EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek alkarregaz aurkeztutakoak izan dira (6 ohikoak eta 15 trantsakzionalak) eta 5 EH Bildurenak. Bidean, oposizinoak osoko bilkurarako erreserbau dituan berrogeta hamar zuzenketa-eske inguru geratu dira.

Aldundiak aurkeztu dauen Gardentasunari buruzko Foru Araua 41 artikulutan egituretan da, eta Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatu andreak aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean. Diputatu andrearen esanetan, “Bizkaiko Foru Aldundiko, erakunde autonomoetako, fundazinoetako, soziedadeetako eta foru sektore publikoko ganerako erakundeetako gardentasuna eraginkor bihurtzeko eta bermatzeko” tresnea da. “Estaduko legearen gitxieneko eskaria gainditzen dau”, esan dau.

Arauaren asmoa, Aldundiaren betebeharrei eta baliabideei buruzko “kalidadezko informazio eguneratua eta errez sartzeko modukoa, argia eta erreza” eskintzea da, eta bere azken helburua hau da: Foru Erakundeak herritarren aurrean kontuak “errezago aurkeztu ahal izatea”. Horretarako “antolakuntza mekanismoa” aurreikusten dau, gardentasuna “eraginkorra” izan daiten, Erreklamazio Batzordea, hiru urteko Gardentasun Plana eta Urteroko Memoria sartuz.

### **ALDAKETAK PROIEKTUAN**

Gaur batzordetik igaro ostean, Foru Arau proiektuak 26 zuzenketa sartuko ditu: 21 EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek alkarregaz aurkeztutakoak izan dira (6 ohikoak eta 15 trantsakzionalak) eta 5 EH Bildurenak.

Jeltzaleek eta sozialistek aurkeztu dituen zuzenketa-eskeei esker, aitatutako arau hori dala eta Aldundiak jendearen aurrera aurkeztu behar dauen informazio “garrantzitsuena” ingelesez eta frantsesez be argitaratu beharko da, hizkuntza ofizial bietan aurkezteaz gain, “nazinoartean lurraldea, bere gaitasunak eta eskintzen dituan aukerak hobeto ezagutu ahal izateko”.

Beste aldaketa bat Gardentasun Planagaz dago erlazionauta. Dokumentu hori 3 urtez behin derrigorrez egin beharko da eta aukerea zabaltzen dau Foru Administrazioak gardentasun arloko eskaera barriak ezarri daizan, planak berak jasotakoez aparte.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Ganera, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek alkarregaz aurkeztu dituen zuzenketa-eskeen artean, arauak propondutuen dauen urterokoa baino laburragoa izango dan epean barrikuspenak egin ahal izateko aukerea jasoten da.

Ganera, jeltzaleen eta sozialisten eretziz “komenigarria” da, urteroko memoriaren bitartez egiten dan barrikuspenagaz aparte, Erreklamazino Batzordeak izendatzen dauen pertsonak agerraldia egitea Batzar Nagusietan, balantzea azaltzeko. Batzordeak onartu egin dau Bizkaiko Batzarrak izatea araua apliketako modua ezarriko dabena.

### ZUZENKETA-ESKE TRANSAKZIONALAK

Zuzenketa-eske transakzionalen irudiaren bitartez, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek oposizino taldeek planteatutako aldaketa batzuk jaso ditue, parte batean. Holan, publizidade aktiboa, errez ulertzeko eta irakurtzeko diseinuen eta mezuen bitartez egingo da, desgaitasuna dabenek pertsonak informazino jasotea bermatzeko. Edozein herritarrek eskatu ahal izango dau publizidadeak aitatutako baldintza horreek betetea. Ganera, arauaren aplikazinoak oso-osorik errespetau beharko dau datuen babesari buruzko legeria, erakusten diran dokumentuetan izaera pertsonaleko datuak emon barik.

Horrez gain, arauaren artikuluetako batek adierazoten dauenez, Aldundiaren eta Merkataritzako soziedadeen defizitari, zor publikoari eta gastu erregelari buruzko informazino azken urteetako bilakaera grafikoa erakutsiz emongo da, biztanleen arabera bananduta. Ganera, Aldundiak bere lan boltsak eta horreen osaketea argitaratu beharko ditu.

Beste betebeharetako batek Gardentasunaren Atariagaz dauka zerikusia. Aldundiak hilebete biko epea eukiko dau gehienez, araua indarrean sartzen danetik, atari horren xehetasun teknikoak eta eukiak zehazteko, erregelamendu baten edo Foru Erakundearen akordioaren bitartez. Atari horretan, entzute aktiboa bermatzera zuzendutako guneak ezarri beharko dira, herritarren partaidetzea errealidade bihurtzeko. Informazinoaren eskatzaileak baliabide elektronikoak erabiliz egin ahal izango ditu kontsultak, idatziz eta baita abotsaren bitartez be, eta erregistroaren bidez edo arreta orokorreko bulegoen bidez be bai, jakina.

### EH BILDUREN EKARPENAK

Oposizino taldeen ekarpen asko jaso dituen aurreko zuzenketa-eskeez gain, Foru Gobernua eusten dabenek talde biek, EAJ-PNVk eta PSE-EEK, EH Bilduren bost zuzenketa-eske partzial onartu ditue. Zuzenketa-eske horreen bitartez, emondako informazinoan, alderdi politikoei, federazinoei, koalizinoei edo hautesleen alkatteei hauteskundeetako gastuak finantzetako emondako diru-laguntzak jasotea eta azaltzea lortu dau koalizino abertzaleak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gardentasunaren Atariaren bidez, aurkeztu diran administrazio helegiteei eta administrazioarenganako auzibidezko helegiteei buruzko urteko txostena argitaratuko dau, Erakundearen “ibilpide juridikoa” errezteko, koalizino abertzaletik azaldu dabenez.

Informazio guztira sartzea dobakoa izango da. “Halanda be, informazio hori kopiak emonez edo jatorrizkoa ez dan formatu batera pasauz gauzatzen bada, benetako kostua gaitutuko ez dauen kopurua ordaindu beharra eskatu ahal izango da”, dino adostutako testuak.

Koalizino abertzaleak proponidutako beste aldaketa bat Erreklamazio Batzordeagaz dago lotuta. Hiru kidek eta ordezkoko beste hiruk osatuko dabe, karrerako funtzionarioak izan beharko dira eta horreen artean ez da egongo izendapen libreko lanposturik beteten dauen inor. Ganera, bere osaketak, Administrazioagazko hartu emonak euskeraz izateko herritarrek daben eskubidea bermatu beharko dau.

Batzordeak testuan egindako beste aldaketa batzuk be onartu ditu, EH Bilduren eretziz idazketak izaera “subjektiboa” eukalako. “Argi eta garbi dago Gardentasunari bultzada emoteak... Estatu osoan gai honen inguruan aurrera eroaten ari diran ekimen abangoardistenen bidean jarriko dauela Bizkaia”. Zioen Azalpenean sartutako esaldi hori kendu egingo da, “Bizkaiko araua baino gehiago bilbainada bat emoten dauelako”, esan dau Arantza Urkaregik.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## **NOTA DE PRENSA**

03/02/2016

### **Vía libre a la Norma Foral de Transparencia de Bizkaia**

El proyecto de Norma Foral de Transparencia de Bizkaia ha pasado hoy en las Juntas Generales un nuevo trámite parlamentario. La comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha dejado listo para su aprobación, en un próximo pleno, un nuevo texto con la incorporación de 26 enmiendas de los grupos junteros, de las que 21 eran conjuntas de PNV y PSE-EE (6 ordinarias y 15 transaccionales), y 5, de EH Bildu. En el camino se queda medio centenar de enmiendas que han sido reservadas por la oposición para la sesión plenaria.

El proyecto de Norma Foral de Transparencia presentado por la Diputación, que se estructura en 41 artículos, ha sido presentado en la Cámara vizcaína por la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, que lo ha calificado como una herramienta para “hacer efectiva y garantizar la transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, organismos autónomos, fundaciones, sociedades y demás entidades del sector público foral”. “Supera la exigencia mínima de la ley estatal”, ha dicho.

La Norma pretende “ofrecer una información de calidad, actualizada y de fácil acceso, clara y sencilla” sobre las funciones y recursos de la Diputación, y se postula con un objetivo último: “facilitar la rendición de cuentas” de la Institución foral ante los ciudadanos. Para ello, contempla un “mecanismo organizativo” para que la transparencia pueda ser “efectiva” mediante la introducción de una Comisión de Reclamaciones, un Plan de Transparencia a tres años y una Memoria anual.

#### **CAMBIOS EN EL PROYECTO**

Tras pasar hoy por comisión, el proyecto de Norma Foral incorporará 26 correcciones: 21 enmiendas conjuntas de PNV y PSE-EE (6 ordinarias y 15 transaccionales), y 5 de EH Bildu.

Gracias a las enmiendas de jeltzales y socialistas, la información “más relevante” que la Diputación tiene que hacer pública en función de la citada norma, se deberá publicar en inglés y francés, además de en los dos idiomas oficiales, “para facilitar un mayor conocimiento del territorio, sus capacidades y oportunidades en el ámbito internacional”.

Otro cambio tiene que ver con el Plan de Transparencia, documento de carácter obligatorio que se realizará cada 3 años, y en el que se abre la posibilidad a que la Administración Foral implemente nuevas exigencias en materia de transparencia



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

además de las que el propio plan recoja. Asimismo, dentro de las enmiendas de PNV y PSE-EE, se recoge que se puedan hacer revisiones en un plazo inferior al anual propuesto por la norma.

Además, jeltzales y socialistas consideran “conveniente” que, además de la revisión de la memoria anual, se realice una comparecencia en Juntas Generales de quien designe la Comisión de Reclamaciones cara a explicar dicho balance. La comisión ha aceptado también que sea el Parlamento vizcaíno el que establezca la manera de aplicación de la norma.

## ENMIENDAS TRANSACCIONALES

A través de la figura de las enmiendas transaccionales, PNV y PSE-EE recogían, en parte, algunas modificaciones planteadas por los grupos junteros de la oposición. Así, la publicidad activa se llevará a cabo a través de diseños y mensajes comprensibles, y de lectura fácil, garantizando el acceso de la información a personas con discapacidad. Cualquier ciudadano podrá requerir el cumplimiento de las exigencias de esta publicidad. Además, la aplicación de la norma deberá respetar plenamente la legislación de protección de datos, obviando datos de carácter personal en los documentos expuestos.

Asimismo, uno de los artículos de la norma incorpora que la información relativa a déficit, deuda pública y regla de gasto de la Diputación y sociedades mercantiles, se expondrá con evolución gráfica de los últimos años, desagregado por habitante. Además, Diputación tendrá que publicar las bolsas de trabajo propias y la conformación de las mismas.

Otra de las obligaciones tiene que ver con el Portal de Transparencia. La Diputación dispondrá como máximo de dos meses desde la entrada en vigor de la norma, para determinar los detalles técnicos y contenidos de este portal, bien mediante un reglamento o por acuerdo de la Institución foral. En este Portal se deberán establecer espacios dirigidos a garantizar la escucha activa para hacer efectiva la participación ciudadana. El solicitante de información podrá hacer consultas por medios electrónicos, por escrito e incluso oralmente, bien a través del registro o de las oficinas de atención general.

## APORTACIONES DE EH BILDU

Además de las anteriores, que venían a recoger muchas aportaciones de los grupos de la oposición, los dos grupos que sustentan al Gobierno foral -PNV y PSE-EE- han aceptado cinco enmiendas parciales de EH Bildu. Entre ellas, la coalición abertzale ha logrado que, en la información aportada, se recojan y expliquen las subvenciones



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

concedidas a partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones de electores para la financiación de los gastos electorales.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Portal de Transparencia, publicará un informe anual sobre los recursos administrativos y los recursos contenciosos administrativos presentados para facilitar el “recorrido jurídico” de la Institución, han explicado desde la coalición abertzale.

El acceso a toda la información será gratuito. "No obstante, si se materializa mediante la expedición de copias o la trasposición a un formato diferente al original, se podrá exigir el pago de una cantidad que no exceda de su coste real", reza el texto acordado.

Otro de los cambios propuestos por la coalición abertzale tiene que ver con la Comisión de Reclamaciones que estará formado por tres miembros y tres suplentes, que deberán ser funcionarios de carrera y no podrán ocupar puestos de libre designación. Además, su composición deberá garantizar el derecho de la ciudadanía a mantener sus relaciones con la Administración en euskara.

La comisión ha aprobado también algunas modificaciones en el texto por el carácter “subjetivo” de la redacción, según EH Bildu. “No cabe duda de que un impulso de la Transparencia... situará a Bizkaia en la senda de las iniciativas más vanguardistas que sobre esta materia se están llevando a cabo en el conjunto del Estado”. Esta frase incorporada en la Disposición de Motivos, se eliminará, ya que “más parecía una bilbainada, que una norma vizcaína”, ha apuntado con ironía Arantza Urkaregi.